

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

202/2019 Foru Agindua, apirilaren 23koa. Santiagoko 2019ko Nekazaritza Azoka iragartzeko kartelaren lehiaketa deialdia

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak egoki deritzo, Araban Santiagoko 2019ko Nekazaritza Azoka dela-eta antolatuko diren ekitaldien berri behar bezala emateko, iragarki kartelaren lehiaketa publikorako deia egiteari.

Aztertu dira aginduzko txostenak

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Santiagoko 2019ko Nekazaritza Azoka iragartzeko kartelaren lehiaketarako deialdia onestea. Lehiaketaren saria 1.234,57 eurokoa da, eta sari bakarra izango da.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onestea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018rako gastu aurrekontuko 40.1.01 41.00 2.2.7.99.02.8 partidatik ordainduko da.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 23a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

Santiagoko 2019ko Nekazaritza Azoka iragartzeko kartelaren lehiaketa

Santiagoko 2019ko Nekazaritza Azoka iragartzeko kartelaren lehiaketarako deia egiten da, oinarri hauekin bat etorritz:

Oinarriak

1. Kartelaren neurriak edo, hala badagokio, haren kopiaren neurriak 50x70 zentimetrokoa izan beharko du. Betiere moldiztegiko sistemen bidez erreprodukzioa egin ahal izateko behar den adinako bereizmena izan behar du.

2. Kartelean honako testu hauek azaldu beharko dira:

SANTIAGOKO NEKAZARITZA AZOKA

2019KO UZTAILAK 25

25 DE JULIO DE 2019

FERIA AGRÍCOLA DE SANTIAGO

VITORIA-GASTEIZ

UPV CAMPUS DE ALAVA

EHU ARABAKO CAMPUSA

Arabako Foru Aldundiaren eta gainerako babesleen komunikazio markak eurek ezarriko dituzte ofizioz kartelaren erreprodukzioan.

Nola Santiagoko 2019ko Azokak aditzera eman nahi duen zer nola despopulatzen ari diren gure udalerrriak, batez ere Mendialdeko Kuadrillan daudenak, aurkezten diren karteletan hori izan beharko da kontuan. Horrez gain, goiburua hau agertu beharko da: "Pueblos para una Álava viva", "Araba bizian, ezinbestekoak herriak"

3. Lanak aurretik argitaratu gabeak eta beste edozein lehiaketatan saritu gabeak izango dira.

4. Sari honetara edozein pertsona fisiko aurkez daiteke, edozein dela ere haren nazionalitatea edo bizilekua.

5. Lanak izenpetu gabe aurkeztu beharko dira, euskarri zurrun baten gainean eta atzealdean ikurriz bat jarrita. Halaber, gutun azal itxi baten barruan ikurriz hori bera ipini beharko da, eta honako hauek sartu: egilearen izena, bi abizenak, nortasun agiriaren fotokopia edo balio bereko agiri batena, atzeritarra izanez gero, eta bizilekua eta telefono zenbakia. Gutun azalaren kanpoaldean, berriz, ikurrizta eta zein lehiaketatara aurkezten den adierazi beharko da.

Euskarri informatikoan aurkezten diren lanei dagokienez, koloretan inprimatutako proba batekin batera aurkeztuko dira.

Irabazle ateratzen den kartela gehienez ere DIN A-2ko tamainan erreproduzituko da.

Berebat, norberaren datuak dauzkan gutun azalaren barruan, deialdi honen 3. oinarria betetzen dela dioen zinpeko adierazpena sartuko da; hau da, lan hori aurrez argitaratu gabea eta beste ezein lehiaketatan saritu gabea dela dioen zinpeko adierazpena.

6. Hilabeteko epea ezartzen da agindu hau argitaratzen denetik, jatorrizkoak entregatzeko. Postaz edo garraibideren batez bidalitako lanei dagokienez, igorritako lanak fakturatu direla egiaztatzen duen taloia aurkeztea lanak aurkeztea bezalaxe izango da. Baldin eta, edozein arrazoiengatik, baita ezinbestegatik ere, epaimahaia erabakia hartzeko biltzen denean lana oraindik jaso ez bada, lehiaketaz kanpo geratuko da. Saila ez da izango gerta litezkeen jatorrizko lanen galeren edo narriaduren erantzule, ezta atzerapenena edo postetxeari zein hirugarrenei egotz dakiekeen beste edozein inguruabarrena ere, lanen bidalketei eragiten dietenean.

Bai lanak bai gutun azal itxiak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailean aurkeztuko dira, edo hara bidali. Helbidea: Probintzia plaza, zk.g., 01001 - Gasteiz.

7. Artista bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara.
8. 1.234,57 euroko sari bakarra izango da.
9. Honako hauek izango dira kalifikazio epaimahaian:
 - María Asunción Quintana Uriarte, Nekazaritza zuzendaria.
 - M. Lucía López Peciña, diseinu eta aurreinprimaketako teknikaria.
 - Alberto Osoa Gutiérrez, Moldiztegi Zerbitzuaren burua.
 - Patxi Lauzurica Fernández de Gorostiza, Nekazaritza Sustapenaren Atalaren burua.
 - Emérita López de Alda Gil, Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.Epaimahaiko idazkari Luis Javier Román de Lara arituko da, Nekazaritza Saileko teknikaria.
10. Epaimahaiak erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahal izango da.
11. Aurkezten den lan bakoitzeko jasoagiri bat emango da. Saritu gabeko lanak berreskuratzeko, jasoagiri hori aurkeztu beharko da. Lehiaketa ebazten denetik hogeita hamar egun igarotakoan, aurkeztutako lanak jaso ez badira, eskubide horri uko egin zaiola esan nahiko du, eta lan horiek suntsitu egingo dira.
12. Saritutako lana Santiagoko Nekazaritza Azoka dela-eta egingo diren jai ospakizunak iragartzeko erabili ahal izango da.
13. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.
14. Lehiakideek lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.
15. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak baino ez du deialdi honetan sortzen diren auzi guztiak ebazteko eskumena.

Indarreko araudia aplikatuko da, eta, zehazki, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.
16. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018rako gastu aurrekontuko 40.1.01 41.00 2.2.799.02.8 "Tokiko produktuen zabalkundea" partidatik ordainduko da.